

JARDUERA-TXOSTENA

2024



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

AURKIBIDEA

▪ VITAL FUNDAZIOA ZENBAKITAN

▪ GIZARTE ARLOA

- Gizarte-bazterketaren aurka
- Desgaitasuna gainditzea
- Gaixotasunaren aurkako laguntza
- Genero berdintasuna
- Laguntzako beste programa batzuk

▪ KULTURA ARLOA

- Vital Fundazioa Kulturunea
- Kultura jarduerak babestea
- Kultura berrikuntza
- Euskararako eta euskal kulturarako laguntza

▪ HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA ARLOA

- Programak ikastetxeetan
- Lanbide Heziketa eta ekintzailletza
- IkasVital ikastaroak
- Bekak
- Ikerketa

▪ ENPLEGU ETA LANERATZE ARLOA

- Laneratzea
- Ekintzailletza
- Empleo Araba
- Vital Bootcamps

▪ INGURUMEN ETA LURRALDEAREN SUSTAPEN ARLOA

- Ingurumen programak
- Lurraldearen sustapena
- Jaibus Vital

▪ KIROL ARLOA


- Oinarrizko kirola
- Kirol inklusiboa
- Kirol herrikoia

▪ LAGUNTZA-DEIALDIAK

- 2024ko laguntza deialdi irekia
- 2024ko deialdia kirol ekipamenduetarako

▪ VITAL EGUNA

VITAL FUNDAZIOA ZENBAKITAN



2024an, jarduera propioetan eta lankidetzako jardueretan banatu du bere gizarte ekintzaren jarduera Vital Fundazioak. Lankidetzak lurraldeko elkarte eta erakundeekin sinatutako ohiko hitzarmenen bidez nahiz Arabako gizarteak eskatzen zituen premia berriei erantzuteko Fundazioak eskaini duen laguntza irekien deialdiaren bidez egin dira.

Vital Fundazioa Arabako aurrezki-kutxen 175 urte baino gehiagoko historia-ren eta euren Gizarte Ekintzaren lan eza-gunaren oinardekoa da. Hala, arabarren bizi-kalitatea hobetzea helburu duten proiektuak bultzatzera bideratzen du bere baliabideen kudeaketa, eta enfasi berezia jartzen du gizarte-programak babestean, bazterkeriaren eta gaixotasunaren aurka borrokatzen laguntzen dutenei lagunduz, enplegurako prestakuntza eta laneratzea babestuz, eta Arabako kultura-sarea zabaltzen lagunduz.

Jarduera-eremu oso zabalak hartzen ditu, Nazio Batuen 2030 agendan definitutako Garapen Jasangarriko Helburu (GJH) guztiekin lerrotatuta daudenak; estrategiak partekatzen ditu Lurraldea eraldatzen laguntzeko berarekin batera lan egiten duten erakundeekin eta elkarteekin, eta etorkizun pozgarri baterantz begiratzen du, hezkuntzaren, zientziaren eta ikerketaren erronka berriei erantzunez.


Vital Fundazioak arabarrekin duen konpromisoari eusten dio, eta gardentasunean, zintzotasunean, errespetuan eta justizian, inpartzialtasunean eta lurraldearen ongizatean oinarritutako kudeaketari ematen dio indarra. Bere gizarte-lana ikuspegi solidariotik nahiz garaikidetik egiten du, Lurraldearen aurrerapen soziala, ekonomikoa eta kulturala bultzatzen ditu eta gizarte hobea eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzen du.

8.243.507 €

3.000 jarduera baino gehiago
6 jardun-arlo
200.000 onuradun baino gehiago

VITAL FUNDAZIOAREN INBERTSIOA,
ARLOKA, 2024AN

- GIZARTE ARLOA
- KULTURA ARLOA
- HEZKUNTZA ARLOA
- ENPLEGU ARLOA
- INGURUMEN ARLOA
- KIROL ARLOA



Gizarte Arloa

Gizarte-
bazterketaren
aurka

Desgaitasuna
gainditzea

Gaixotasunaren
aurkako
laguntza

Genero
berdintasuna

Laguntzako
Beste Programa
Batzuk

Laguntzen dutenei laguntzen diegu, gizartean eragin positiboa eta eraldatzailea duten programak babestuz, baita bazterkeriaren eta pobreziaaren aurka borrokatzen dutenak ere, bizi-kalitatea hobetuz, gaixotasunari eta desgaitasunari ikusgarritasuna emanez eta bizikidetzaren eta gizarte-kohezioaren aldeko apustua eginez

1.770.745 €



Gizarte-bazterketaren aurka

Honako hauekin ere elkarlanean dihardugu:

- **CORAZONISTAS FUNDAZIOA:** 'Coindre Etxea' proiektua, baliabiderik gabeko gazteak hartzeko
- **ITAKA-ESCOLAPIOS FUNDAZIOA:** Etor-kinak gizarteratzeko eta laneratzeko 'Ojalá' proiektua, gaztelaniaz alfabetatzen lagunduz.
- **GIZABIDEA:** Irteera programatuak eta Eguberri eguna presoentzat.
- **GIZARTERAKO:** Maskulinitateari eta feminitateari buruzko tailer-rrak eta mahai-inguruak. Emakume prostitutak artatzea.
- **INSOLA:** Aldi baterako etxebizitzak, baztertuta dauden pertsonen pixkanaka bizitza autonomorako trantsizioa errazteko.
- **ZUBIA GURUTZATZEN:** Ekimen Etxea eta gizarteratzeko eta laneratzeko tailer-rrak.
- **ITXAROPENAREN TELEFONOA:** Premia larrian eta tentsioan dauden pertsonen ak-tiboki entzuteko eta laguntzeko zerbitzua. 2024an 45. urteurrena bete dute.

ENTRETANTO ENTRETENTE

Arabako Errioxan askotariko pertsonen elkarbizitza positibo-rako topaguneak ahalbidetzen dituzte
489 zuzeneko onuradun
4.518 zeharkako onuradun.

BERAKAH

Zailtasun ekonomiko gehien dituzten pertsonen eta senideei harrera eta laguntza ematea
15.000 pertsona artatu dira.

JEIKI FUNDAZIOA

Droga-mendekoei mendekotasunak gainditzeko laguntzea, Harrera Zentroaren eta Hazgarri programaren bidez
3.364 esku-hartze egin dira.

ELIKAGAIEN BANKUA

Elikagaiak eta dirua biltzea, gehien behar dutenen artean banatzeko
3.023 onuradun.

GURUTZE GORRIA

Egoera oso zaurgarrian dauden pertsonen ahal-duntzeko programa
2.670 esku-hartze kalean.

CÁRITAS

Pertsona kalteberei eta baztertuei laguntzea, gizarteratu daitezkeen
507 pertsona artatu dira.

ADSIS FUNDAZIOA

Etorkinekiko esku-hartze soziala, gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunak eskura ditzaten
49 pertsona, horietatik 41 emakume.

GOIAN ALDE ZAHARRERA

Gasteizko Alde Zaharreko gizarte- eta hezkuntza-proiektua, aniztasuna eta auzokideen arteko bizikidetzak bultzatzeko
1.000 auzokide inguru.



Bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ekintzak garatzen dituzten programak babesten di-tugu, arreta berezia jartzen diegu ba-besik gabeko ko-lektiboari, hala nola hurrei, emakumei edo etorki-nei.

Desgaitasuna gainditzea

Honako hauekin ere elkarlanean dihardugu:

- **ASPASOR:** Arabako gorrentzako lan-bitartekotzako zerbitzua.
- **DWON ARABA ISABEL ORBE:** Dibertsitate funtzionala eta Down sindromea duten pertsonen bizi independente baterako bidea hasteko eta amaitzeko aukera eskaintzea, Enebizia Proiektuari esker.
- **USOA TUTORETZA FUNDAZIOA:** Desgaitasun intelektuala duten eta babesgabezia-egoeran dauden pertsonentzako arretaren kalitatea hobetzea.
- **ITXAROPENA:** Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen osasun integrala sustatzea, aisialdiko jarduerak inklusiboen bidez.
- **HAR EMAN: HAR-EMAN MARTXAN** proiektua, adimen-desgaitasuna duten pertsonak ingurune arruntetan laneratzeari buruzko azterlana.
- **EGINAREN EGINEZ:** Desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarteak, beren bizitza independentea sustatzeko 11 programarekin lan egiten duena. Freedom Live Bizimodu Independentearen Mugimenduan parte hartzen dute Europan.
- **ONCE:** Arabako Itsuen Erakunde Nazionalarekin lankidetzan ari gara Gasteizko kaskabilo-lasterketaren garapenean.



Mendekotasuna, desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomia eta arreta sustatzen lan egiten duten elkarrekin lankidetzan aritzen gara. Herriarrak desgaitasunari erantsitako arazoak sentsibilizatzen laguntzen dugu, eta aisialdiko eta denbora libreko tailerrak eta programak babesten ditugu, pertsona horien eta haien familien bizi kalitatea hobetzeko.

Gaixotasunaren Aurkako Laguntza

Minbizia duten **2.170** pertsona Araban

3.000 parte-hartzaile minbiziaren aurkako lasterketan, Gasteizen

3.000 parte-hartzaile bularreko minbiziaren aurkako lasterketan



Gaixotasunaren aurka borrokatzen duten elkarteei laguntzen diegu, eta ahalegin handiagoa egiten ari gara prebentzioan, tratamenduetan eta ikerketan hobekuntzak lor daitezen. Gaitzei buruz sentsibilizatzeko eta prebentzio ekimenak sustatzen ditugu, baita pazienteei laguntzeko ekimenak ere.

MINBIZIAREN AURKA

Gaixotasuna normalizatzeko eta herritarrak prebentzio-neurriei buruz sentsibilizatzeko, gizarte-laguntzako programak garatzea eta gaixoei eta haien senideei arreta emozionala ematea du helburu.

AECC (Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte Araban): laguntza psikosoziala emateko eta zabalkunde lana egiteko programa, eta **Minbiziaren Aurkako Martxa Solidarioak** Gasteizen, Amurrión, Agurainen eta Oionen.

983 pertsona artatu dira

ASAMMA (Mastektomizatutako Emakumeen Elkarte): Laguntza eta suspertze emozionala. Masajea eta drainatze linfatikoa ere bai.

182 pertsona artatu dira

ASPANAFOA (Minbizia duten Arabako Haurren Gurasoen Elkarte): **Eskulguna proiektua**, esku-hartze psikosoziala, terapia eta hezkuntza-euskarria emateko eta **Activa proiektua**, haurren minbiziaren aurka sentsibilizatzeko.

126 pertsona artatu dira

Gaixotasunaren Aurkako Laguntza



GAIXOTASUN MENTALEN AURKA

Gaixotasun horien kalitatezko arreta, sentsibilizazioa eta dibulgazioa bilatzen duten programak babesten ditugu. Baita aisialdikoak eta denbora librekoak ere, sustatzen dituzten Arabako elkarteekin lankidetzan estuan:

ACABE: (Anorexiaren eta Bulimiaren aurkako Arabako Elkarte): Arreta psikologikoa eta **‘Betekada nahasmendua’** delakotik errekuiperatzea.

329 pertsona artatu dira

ASAFES (Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte): Osasun mentalaren arreta nerabezaroan eta gaztaroan. Arabako biztanleentzako **Mugi zaitez osasun mentalaren alde** jardunaldia.

1.000 pertsona artatu dira

ASASAM (Ahaideen eta Gaixo Psikikoen Aiarako Elkarte): Zentro psikosoziala eta **Areto Futboleko Liga** Euskadiko Osasun Mentaleko zentroen artean.

198 pertsona artatu dira


FUNDACIÓN TUTELAR BEROA: Gaixotasun mentala duten Arabako pertsonen gaitasun juridikoa gainerako pertsonen baldintza berberetan gauzatzeko aukera izan dezaten.

225 pertsona artatu dira

ETXEA JOSU: Gaixotasun mentala duten pertsonak hartzeko eta gizarteratzeko elkar-tea.

31 pertsona artatu dira

Gaixotasunaren Aurkako Laguntza



ENDEKAPENEZKO GAIXOTASUNEN EDO GAIXOTASUN MUGATZAILEEN AURKAKOAK

Endekapenezko gaixotasunak edo gaixotasuna duten pertsonen eguneroko bizitza zailtzen duten gaixotasunak ikusarazteko programak eta proiektuak babesten ditugu, eta ikerketara bideratutako funtsak biltzeko ekintzak babesten ditugu:

AAL (Laringektomizatuen Arabako Elkarteak)

ACCU ALAVA (Crohn eta Kolutis Ultzeradun Gaixoen Arabako Elkarteak)

ADALAVA (Diabetikoen Arabako Elkarteak)

ADEAR (Artritis Erreumatoide eta Espondilitis Ankilosantearen Arabako Elkarteak)

ADELA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Arabako Elkarteak). Laguntza programa 'CuidatELA' -ren eskutik eta ikusgarritasuna 'Córrela 24' lasterketaren eskutik

ADELES (Lupus-gaixoen Arabako Elkarteak)

ADELPRISE (Linfedema primarioak eta sekundarioak kaltetutakoen elkarteak)

AEMAR (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarteak). 27. 'Mójate – Busti Zaitetz', errehabilitazio-zerbitzuak mantentzeko dirua biltzeko

AFARABA (Alzheimer eta beste dementsia batzuk dituzten pertsonen senideen eta lagunen Arabako Elkarteak) Landa-inguruko prebentziorako 'HADA' programa

ALCER (Giltzurruneko Gaixoen Arabako Elkarteak)

ARENE (Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarteak)

ARNASA ARABA (Fibrosi Kistikoen Arabako Elkarteak)

ASAFIMA (Fibromialgia eta Neke Kronikoen Sindromearen Arabako Elkarteak)

ASOPARA (Parkinson Araba Elkarteak)

ATECE (Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarteak)


EZEBA (Zeliakoen eta Haien Senideen Arabako Elkarteak)

TEL EUSKADI (Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoak dituzten Pertsonen Familien eta Lagunen Elkarteak)

Genero Berdintasunaren Zikloa

GENERO BERDINTASUNARI BURUZKO VITAL FUNDAZIOAREN PROGRAMA PROPIOA (II. ZIKLOA)

Ekimen hau Vital Fundazioak gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin duen konpromisoaren barruan kokatzen da, eta gizarteak aurrera egiteko garrantzi handia duen eta herritar guztiek parte hartu behar duten gai baten hainbat alderdiri buruz hausnartzera bultzatzen du. Vital Fundazioa Kulturunea gure aretoa hainbat gai lantzeko agertokia izan da, hala nola LGTBQ+ kolektiboa, emakumeak historian, amatasuna, etxe-ko esklabotza, emakume artistak edo pornografia; hainbat formatutan: bakarrizketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, zinema, etab.



- Zaira Carmona zuzendari duen **‘La amiga de mi amiga’** filma
- **‘Maskulinitatea sare sozialetan’**, David Pareja influencierraren hitzaldia
- **‘Historia dibulgatzaileak’** mahai-ingurua
- **‘Vulcanizadas’** emakumez osatutako euskal blues bandaren kontzertua
- Patricia Sornosa komikoaren **‘Desaparezca aquí’** bakarrizketa
- **‘El sexo en tiempos del románico’**, Isabel Mellénen liburuaren aurkezpena
- **‘Amen bizitza sekretua’**, zuzeneko podcast formatuan
- **‘Desio maskulinoaren eraikuntza’**, Raúl Macías influencer-arena
- **‘Artistak, musak eta asaldatzaile kulturalak’**, Dorleta Ortiz de Elgearen hitzaldia
- **Amelia Tiganusen hitzaldia**, emakumeen salerosketatik bizirik atera dena.
- **‘Pornografia eta genero-indarkeria’**, Mónica Alario Gavilánen hitzaldia
- **‘No me toques el cuento’**, Teatroz konpainiarena
- **‘La Mare’** Cadizko kantautorearen kontzertua, emakumeen ahalduentzearen alde
- **‘El bien querer’**, Psico Woman Isa Duque psikologo eta sexologoaren showa
- **‘Desio femeninoaren eraikuntza’**, Sonia Encinas sexologiarena

15 jarduera 2.563 parte-hartzaile

Laguntzako beste programa batzuk


VITAL FUNDAZIOAREN LAGUNTZA PROGRAMA PROPIOAK



VITALQUILER

Programa horrek alokairuko etxebizitza bat eskuratzea eta bertan jarraitzea errazten die hala behar duten gure lurraldeko biztanleriaren hainbat sektoreri, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatuan finkatzen diren bitartean.


308 etxebizitza
80 familia artatu dituzte
87.586 € bideratu dira



KOMUNAK EGOKITZEA

Programa horri esker, 60 urtetik gorako pertsonen egokitzapen integraleko obrak egin ditzakete beren etxebizitzetan, bainuontzien ordeztutako dutxa-platerak jartzeko eta manpara egokituak eta laguntza-elementuak instalatzeko.

20 eskatzaile
31.634 € bideratu dira



AUDIFONOAK ETA HORTZ-TRATAMENDUAK

60 urtetik gorakoek, beren errentaren arabera, audifonoak edo hortzetako tratamendu funtzionalak erosteak dakartzan kostuei aurre egin diezaiekete.

120 eskatzaile
65.498 € bideratu dira

Vital Fundazioak hiru asistentzia-programa propio garatzen ditu: VITALQUILER, etxe bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat, eta 60 urtetik gorako pertsonentzako bi laguntza mota, KOMUNAK EGOKITZEA eta AUDIFONOAK EROSTEKO ETA HORTZ-TRATAMENDUAK EGITEKO. Gainera, gure lurraldeko elkarrekin kide diren eta beste behar batzuei erantzuten dieten beste erakunde batzuen lana babesten du. Errenta eta erroldatze baldintzak betez gero, eskatzaileek diru-laguntza hauek jaso ditzakete.

LAGUNTZA-PROGRAMAK LANKIDETZAN

Honako gizarte-elkarrekin hauekin ere lankidetzan aritzen gara:

- **AI LAKET** (Arriskuen murrizketaren aldeko drogazaleak): Esku-hartze sozialerako eta arazoa bistaratzeko boluntarioritza-programa.
- **AMAPASE** (Arabako Guraso Bananduen Elkarrekin). Krisian dauden Familiei Arreta Integrala eta Gurasokidea emateko programa.
- **ARABARNEE** (Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren gurasoen elkarrekin). Ekinoterapiako jardura indartzea.
- **ASCUDEAN** (Familia zaintzaileen eta menderatutako pertsonen elkarrekin). 'Prestakuntza eta dibulgazioa digitalizatzen' programa.
- **BORONDATE ONA** (Adinekoen egoitzetan, geriatrikoetan eta desgaituentzako zentroetan animazio-jarduerak egiten dituen elkarrekin).
- **IKIRIKI** (Ongizate psikosoziala eta animaliekin eta naturarekin interakzioa sustatzeko elkarrekin).


Kultura Arloa

Vital
Fundazioa
Kulturunea

Kultura
Jarduerak
Babestea

Kultura
Berrikuntza

Euskararako
eta Euskal
Kulturarako
Laguntza



Artea eta kultura defendatzen ditugu, gizartea eraldatzeko adierazpen-tresna baitira. Halaber, beste esperientzia eta ikaskuntza batzuekiko topagune eta erreferentzia-gune izan nahi dugu, pertsonen artean harmonia, tolerantzia eta ulermen handiagoa lor dadin.

2.010.557 €



Vital Fundazioa Kulturunea

Vital Fundazioak kultura-agenda garrantzitsua du urtean zehar, eta erakundeak zuzenean garatzen du Vital Fundazioa Kulturunean (Bakea kalea 5, Dendarabako 1. solairua). Gainera, espazio hau lagatzen du musika, zinema, antzerki, hitzaldi, ikastaro eta tailerretako beste ekimen kultural batzuekin lankidetzan aritzen baita, kultura-topagune bat bultzatzea helburu.

ZINEMASTEA

Vital Fundazioak sektore zinematografikoari babesa emateko antolatutako euskal zinemaren astearren 40. urteurrena **11** emanaldi eta amaiera-ekitaldia **3.492** ikusle

EUSKAL ZINEMA DOKUMENTALAREN ASTEA

Vital Fundazioak bultzatzen duen aste honetako X. edizioa, gaurkotasuna eta kalitatea eskutik daramatzan zinema dokumentalaren balioa nabarmentzeko **5** emanaldi **602** ikusle

ICOFF JAIALDIA

Vitoria-Gasteizko Film Laburren Nazioarteko III. Jaialdia. Formatu txikiko lanak erakusten dira, munduko zinemaldi onenetan sarituak **50** film labur **1.938** ikusle

ASTEARTE MUSIKALAK

Vital Fundazioak duela hiru hamarkada luzetik hona etenik gabe antolatutako ganbera-musikaren lurraldeko ziklorik garrantzitsuenak **15** kontzertu **3.277** ikusle

JAZZ VITAL

Jazza zabaltzeko zikloaren VIII. edizioa, Lurraldeko artistek egindako lanei arreta berezia eskaintzera bideratua **4** kontzertu **577** ikusle

DAZZ JAZZ

Dazz Elkarateak eta Vital Fundazioak antolatuta, IX. edizioa burutu du, lehen mailako jazz artisten kontzertu-proposamen erakargarriaren eskutik **5** kontzertu **1.751** ikusle

EMANALDIAK KULTURUNEAN

Kontzertuak: Ruper Ordorika, David Cid Trio eta Perico Sambeat, Fanny Desk talde arabarra, Arima ikuskizuna (flamenkoa eta txalaparta). Antzerkia: Sexberdinak eta Espejismo **6** emanaldi **1.200** ikusle

MENDI TOUR

XII. edizioa Gasteizen, 2023ko Mendi Film Jaialdi-ko mendiko zinemaren film sarituenak ikusgai **14** emanaldi **1.161** ikusle





Honako jarduera hauetarako ere laga dugu Kulturunea:

- **URREZKO ZELEDONAK:** hitzaldi zikloaren XIV. ediziorako
- **CHAVELA VARGAS:** Amalur Films eta Sonora Estudios-ek sustatutako omenaldi musikala
- **ELKARREKIN ABESTEN:** Arabako Abesbatzen Federazioak antolatutako zikloa, lurraldean kantu korala bultzatzeko
- **GARRASI ISILAK:** Itziar Rekalde protagonista duen ahozko narrazio ikuskizuna
- **HAZIARABA:** Txikientzako estimulazio artistikoko 3 ikuskizun
- **ARGAZKILARITZA ASTELEHENAK:** Arabako Argazkilari Elkartek antolatutako hitzaldiak
- **MAGIALDIA:** dibulgazio-hitzaldi bat, magia ikuskizun 2 eta haurrentzako gala bat Gasteizko Magia Jaialdian
- **NUNCA JAMÁS:** Peter Panen omenezko musikala
- **EUROPAKO SUSTRAIAK:** Gure aretoa Europako Sustraiak Elkarteari laga zitzaion, hitzaldi eta zinema zikloetarako
- **UN VASCO DE LA HOSTIA:** Fernando Erre eta Andoni Agirregomezkortaren bakarriketa
- **MANUEL IRADIER TXANGOLARI ELKARTEAREN VIII. JARDUNALDIAK:** dokumentalaren emanaldia eta mendiko hitzaldiak, bere 75. urteurrena dela-eta

Kultura Jarduerak Babestea

Vital Fundazioa Vitoria-Gasteizko **ARTIUM MU-SEOAREN** erakunde babeslea da. Urbiletik hartu du parte ikasleentzako hezkuntza-programetan

2024an, ikasleentzako, haien familientzako eta lagunentzako **FAMILIA BONUAK** izan dira lankidetzaren ardatza




ARTE PLASTIKOAK

- **VITAL ARTE-LEHIAKETA:** Vital Fundazioak antolatutako lehiaketa, ZAS Kultur-en laguntzarekin, gure lurraldeko kultura-sektorea bultzatzen laguntzeko. Hamazortzi urtetik gorako artista arabarrei irekita dago, gai libreko pintura, eskultura, argazkilaritza eta beste teknika batzuen arloetan. 1.500 €-ko 4 sari eta 2023ko eta 2024ko sarituen erakusketa
- **MURGILKETAK:** Euskal Herriko Artista Berrien XVII. Biltzarra. Tailerrak eta performanceak ikastetxeekin. 4 ikastetxe 172 partaide
- **BIZITZARAKO PINTURAK:** Ormandetxa Elkartearekin lankidetzan dihardugu, Arabako Antezanako elizan Xabier Egañaren horma-pintura proiektua eta kultura programazioa mantentzeko.

MÚSICA

- **KONTZERTUAN ETA IREKIA:** Santa Maria Katedraleko Elizpean egindako 4 kontzertuko zikloa.
- **AITZINA FOLK:** Gasteizko XII. Folk Musika Jaialdi Solidarioa, AEFATen ikerketa-proiektuei laguntzeko (ataxia telangiektasia duten kaltetuak).
- **AZTARNA BELTZA:** Musika beltzari buruzko jaialdiaren VI. edizioa Euskadin.
- **BERNAOLA ZIKLOA:** Musika Garaikidearen Nazioarteko XXI. Zikloa. 13 kontzertu, 112 artista agrtokian, 53 musikagileren 65 lan.
- **JESUS GURIDI KONTSERBATORIOA:** Ikasketak egiten ari diren ikasleentzat egiten den Euskadiko musikari gazteen lehiaketari ematen diogu laguntza.
- **EGO eta EO:** Euskadiko Orkestraren (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa) eta EGOn (Euskal Herriko Gazte Orkestra) programazioari ematen diogu laguntza.
- **GASTEIZKO JAZZALDIA:** Gasteizko Jaialdi enblematiko honen 47. edizioko hainbat ekimenetan hartu dugu parte.
 - **MENDIETA KULTURA ELKARTEA:** Artziniegako 8. Kontzertu Zikloa burutzeko.
 - **MIDNIGHT BOOGIE WEEKEND:** Gasteizen soul musikarekin eta R&B-arekin lotutako jarduera ugari biltzen dituen jaialdiaren 8. edizioa. 4 kontzertu, DJak eta haurrentzako musika tailer bat.
 - **OSTEGUNA ROCK VITAL FEST:** Punta-puntako hiru rock talderen kontzertua Andre Maria Zuriaren jaiaaren aurreko ostegunean, Araña del Rock Kultura Elkartearekin batera.
 - **GAUBEAKO SCHUBERTIADA:** Franz Schuberten lanei buruzko ziklo honen VII. edizioa. 5 kontzertu Salvatore de Bachicaboko Mattin Deunaren elizan, Tuestako Jasokundeko Andre Mariaren elizan, Espejoko Salbatzailearen elizan.
- **VITORIA-GASTEIZKO NAZIOARTEKO XVIII. MUSIKA JAIALDIA/IKASTAROA (FCIMV)** Ganberako Musika-ren Lagunak Elkartearekin batera.





UMBRA LIGHT FESTIVAL


Vital Fundazioak, Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gateizko Udalarekin batera, ikusizko arte digitalaren adierazpen artistikoak, hiri-espazioko esku-hartzeak eta teknologia berriak biltzen dituen ekimen honetan hartzen du parte.

2025ean egingo da IV. Jaialdia. Aurreko edizioek publiko-arrakasta handia izan dute.

TEATRO

▪ **TEATRO PARAÍSO:** Vital Fundazioa eta Teatro Paraiso elkarlanean ari dira haurren eta haien familien alfabetatze artistikoa planteatzen duten ekintza-ildo berriak garatzeko. Teatro Beñat-Etxepare / Vital Antzerki proiektuetan hartzen dugu parte, familiakoekin batera antzeztera jolasteko eta Haziaraba in the Mapping Jaialdian. Guztira 68 emanaldi eta 69 ikastetxetako eta zentro okupazio-naletako 14.789 ikusle izan ziren.

▪ **MARIANISTAS IKASTETXEA:** Maiatzean egiten den ANTZERKIAREN ASTEAREKIN lankidetzan dihardugu.



ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

AFRIKALDIA: Afrikako Zinemen Euskal Jaialdiaren IV. Edizioa nazioarteko zinema jaialdia eta lehikaeta da, publiko orori zuzendua, eta ikus-entzunezkoen industriako profesionalentzako eta publiko orokorrarentzako topagune kulturala ere bada, Afrikako kontinenteko eta bertako diasporako zinematografien aniztasun kulturala partekatu ahal izateko.

APIKA: Vital Fundazioak Ikus-Entzunezko Ekoizleen Elkartarekin lankidetzan dihardu, Vital Fundazioa Kulturunean egiten diren ekoizpeneko profesionalentzako eta zinemazaleentzako hitzaldien prestakuntza-zikloak egin daitezten.

FESTIVAL: Vitoria-Gasteiz Telebista Jaialdia. Estreinaldiak, fikziozko denboraldi berriak eta telebista-kateen programak aurkezten dira, ekoizleen eta zuzendarien prentsaurrekoak, jaialdi txiki bat eta amaiera-ekitaldi bat. 35.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte programatutako 50 jardueretan.

GAZTEFILM FEST: 18 urtetik beherakoentzako zinema-gune bat, zinema-areto komertzialek eskain dezaketena ez bezalakoa. Eskoletako saioak Gasteizko, Zigoitiko eta Laudioko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei eskaini zitzaizkien.



Kultura Jarduerak Babestea

POESIA

POETAK MAIATZEAN

ekimenaren **XI. edizioa:**

HUNKITU ARTE Elkartea-
rekin batera, maiatzean zehar
hau Gasteizko eta Arabako 21 udalerritan poesia zabaltzen duen Nazioarteko Jaialdi egiteko aukera ematen dugu. 122 kultura-ekitaldi eta 800 poeta baino gehiagoren parte-hartzea.



IN SITU ART FESTIVAL

Sorkuntza artistiko garaikidea Arabako udalerrri guztietara hurbiltzea da jaialdi honen helburua.

Artearen eta tokiko merkataritzaren arteko lotura sustatzen dute, erakusleihatik obrak erakutsiz haien ikusgarritasuna lortzeko.

Hezkuntza-jarduerak bultzatzen dituzte, hala nola topaketak tokiko, nazioko eta nazioarteko artistekin, eta parte hartzeko tailerrak **INTROSPEKTIVA** programaren bitartez.



KOMIKIAK, ILUSTRAZIOA eta LIBURUAK

- **ATIZA:** Komikiaren Lagunen Elkartearekin lankidetzan dihardugu, **'Crash Comic 2024'** egin dadin.
- **IRUDIKA:** Ilustrazioko Nazioarteko Topaketa Profesionalaren **8. edizioa**, non Euskadiko ilustrazioaren sektoreak egiten duen lana erakusten den, baita Estatu mailakoa eta gonbidatutako hiru herrialdeetako ere. Hitzaldiak, hitzordu profesionalak, tailerrak eta bi egonaldi artistiko.
- **ALVE:** Antzinako Liburu Azoka antolatu du Liburu Zaharreko Enpresarien Euskadiko Elkartek, Vital Fundazioaren babespean.
- **KRELIA:** Eleberri Beltz eta Poliziakoaren Gasteizko Nazioarteko II. Jaialdian parte hartu dugu Arabako literatura-sortzaileekin.



VITAL ARABAN ZEHAR PROGRAMA PROPIOA

Vital Fundazioaren programa propioa, udako hilabeteetan kultura eta entretenimendua Arabako geografiako puntu askotara hurbiltzeko, kultura programazio zabala eskaintzea helburu.

XX. edizioak **109 emanaldi** eraman ditu **Arabako eta Trebiñuko 72 herritara: 54 musika talderen kontzertuak, 44 antzerki emanaldi, 6 abesbatza errezitaldi, 4 dantza erakustaldi eta ballet emanaldi bat. 10.000** parte hartzaile baino gehiago



VITAL FUNDAZIOAREN ERAKUSKETA GUNEAK

- **ERAKUSKETA ZENTROA** (Posta kalea 13-15 Vitoria-Gasteiz) Espazio horrek 2024 osoan berrikuntza prozesu integral batean murgilduta jarraitu du, eta jendearentzat itxita egon da, eraberritze lanen ondorioz. Bukatutakoan, hiriko erakusketa-gunerik modernoena izango da.
- **KORDOI ETXEA:** XV. mendeko eraikin gotiko-zibil enblematico honek, Vital Fundazioaren egoitzak, Fundazioaren ondareko piezak biltzen dituen erakusketa berezi bat hartzen du, modu iraunkorren: interes artistikoko altzariak, antzinako pinturak eta eskulturak, letoizko iturri zirkularrak, plater limosnero izenez ere ezagutzen direnak, eta jatorri askotariko zeramikak.

Erakusketa gotorleku-dorrearen inguruan eta lubanarroan dago.


Kultura Jarduerak Babestea

FREAK FESTIVAL

Valinor Kultura Elkarteak antolatutako aisialdi alternatiboko ekitaldi bat da, publiko orori zuzendua, eta jolas-jarduera ugari ditu: mahai-jokoak, komikiak, zinema, literatura, bideojokoak, rol-jokoak, cosplay, etab.

DANZALAVA

Vital Fundazioak **Dantza eta Mugimendu Nazioarteko Jaialdi** honetan parte hartzen du. 8. edizioan, dantzaren eta mugimenduan dagoen gorputzaren ikuspegi abangoardistenak eta garaikideenak hurbildu dituzte gure lurralde-
ra. Gainera, dantza sortzeko laborategiak bultzatzen dituzte, eta beste zentro eta erakunde batzuekin akordioak eta sinergiak ezartzen dituzte



ARGAZKILARITZA

▪ **ARABACLIK:** Argazkilaritza eta Mugikorraren Arabako 6. Topaketa, herritar guztientzako jarduera irekien eskutik, Foto Gasteiz Elkartearekin batera.

Gainera, honako hauekin lankidetzan dihardugu:

- **AAMM:** Arabako Miniatura eta Maketen Elkartearekin, Peana aldizkaria argitaratzeko.
- **ARABARRAK ARTE ERROMANIKOAREKIN ELKARTEA:** Arte Erromanikoari buruzko Arabako VI. Jardunaldietako hitzaldiak babesten ditugu.
- **SALCEDOKO LAGUNEN ELKARTEA:** Salcedoko Landa Inauterien jaieguna berreskuratzeke.
- **KAZETARIEN EUSKAL ELKARGOA ELKARTEA:** Nieves Concostrina kazetariaren hitzaldirako.
- **LAS CUATRO TORRES ELKARTEA:** Arabako Pentsiodunen, Erretiratuen eta Alargunen Pro-bintzia Elkartearen Barreterapia Ikastaroak babesteko.
- **HAALY PULAR ELKARTEA:** 2024ko Afrika Astearen VII. Edizioa burutzeko.
- **GASTEIZ 2013 ELKARTE HISTORIKOA:** Napoleonen XII. Astea eta Hitzaldi Zikloa burutzeko.
- **BURGELUKO TECNOCLUB ELKARTEA:** Burgeluko Sumo Bot robotika txapelketa babesten dugu.
- **TDEX ELKARTEA:** TDEx Ezagutza Zabaltzeko Vitoria-Gasteizko Elkartearekin, bere hitzaldi eta tailerretarako.
- **ETIKA KLUSTERRA FUNDAZIOA:** Vital Fundazioa da bere diru-iturri bakarra, eta kongresu eta hitzaldietan laguntzen du.
- **FERNANDO BUESA FUNDAZIOA:** Bere dibulgazio jardueran, hitzaldietan, tailerretan eta erakusketa ibiltarian laguntzen dugu.
- **MARIO ONAINDIA FUNDAZIOA:** Gran Place aldizkariaren edizioan hartzen dugu parte.
- Gainera, kultura-lankidetzarako hitzarmenak ditugu **ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDAL, KONTZEJU, KUADRILLA, KOFRADIA ETA ESKUALDE-ZENTRO** gehienekin.

Kultura Berrikuntza

Araban kultura-jarduera berriak garatzeko ingurune egokiak aurkitzen laguntzen du Vital Fundazioak, pentsamolde desberdinak babestuz eta egitura berriak garatzen lagunduz, kultura-abangoardiak sortu, ekoitzi, hedatu, merkaturatu eta zaintzeko.

AZALA

Lasierra herriko landa-ingurunean dago, eta kultura-proiektu bat eta turismo-ostatuko proiektu bat uztartzen ditu. Sormenerako gune paregabea da Euskadin, eta aukera eman die artistei eta ikertzaileei, ikasleei eta kultura langileei lasaitasun eta intentsitate baldintza bikainetan bizitzeko, lan egiteko, ikasteko eta praktika artistikoak partekatzeko, naturarekin harremanetan eta hiriko ohiko distrakziorik gabe.

2024an **32 egonaldi** egin dira, deialdi irekiaren bidez, hainbat jatorritako artistentzat (tokikoak, estatukoak, nazioartekoak). 7 idazketa-egonaldi, 10 dantza-egonaldi, 5 antzerki-egonaldi, arte bisualetako 8 egonaldi, 2 zinema-egonaldi. Egonaldiek batez beste 20 eguneko iraupena izan dute.

GARAION

Ozaetako jarduera etxea, Eusko Jaurlaritzaren Sorgune kalifikazioa duena. Vital Fundazioaren ekarpena jarduera-zentroa mantentzen laguntzean datza.


210 artistari, 351 egunez, diziplina anitzeko **51 proiektu** garatzen laguntzeko espazio sortzailea: zirkua, antzerkia, dantza, bertsolariak, narratzaileak, zinemagiak, musikariak eta diziplina nahasiak, lengoaia berriak eta ikerketa-prozesuen sortzaileak.

BARATZA

Sortzen ari diren arte eszeniko garaikideei laguntzen dien zentroa da, eta bere komunitatearekin eta ekosistemarekin konektatzen ditu. Aldabe plazatxoan dago, ia 300 metro koadro, sorkuntza, ikerketa, prestakuntza, bitartekaritza eta erakusketara bideratuak.

Musikarekin (Jalgi), zinemarekin (Kalakalab), dantzarekin (Larrua proiektua), bertsozaleekin, topaketa soziokulturalekin, arte biziarekin eta abarrekin lotutako sektore edo ideiak biltzen ditu.

Aurten Bertako Fest, bekadun egonaldi bat eta tailer eta masterklaseetarako laguntza eman da.



Euskararako Laguntza

ARABA EUSKARAZ: Arabako Ikastolen Federazioak antolatutako euskararen jaia Araban

▪ **44. edizioa, Oiongo San Bizente Ikastolaren alde**

AEK: Korrika Txikiarekin lankidetzan aritzen gara, eta ikas-tetxeetan eta ikastoletan euskara sustatzeko ekintzak egi-ten ditugu

DENON ESKOLA: euskal hezkuntza-eredu publiko eraldatzailea aldarrikatzen du

▪ **11.000** familia elkartu

▪ **24.000** ikasle

GEU GASTEIZ: euskararen erabilera sustatzeko, honako hauekin lankidetzan

▪ **Gasteizko mintzalaguna' eta 'Familia aisialdia',** aisialdiko jardueretan

▪ **Kantari:** Arabako ikastoletako ikasleak kantari

▪ **Euskaraldia:** gure eguneroko jardueretan euskara sartzea

Euskal Kulturarako Laguntza

EUSKAL PILOTA SUSTATZEA:

Arabako Euskal Pilota Federazioarekin batera, Araban euskal pilota garatzearen alde lan egiten dugu, hauen bidez:

- Emakume pilotariaren sustapena
- Sustapena eskola-etapan
- Sustapena etapa federatuan
- Pilotagune (pilota erakustaldiak)
- Euskal Pilota Txapelketak

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA:

‘Arabako bertsolari txapelketa’

proiektua babesteko

MULIXKA DANTZA TALDEA: Vital Fundazioarekin batera online dantzatzen ikasteko zabaldantza.com garatu duen dantza taldea

- **21** dantza, **63** bideo tutorial

JARE DANTZA TALDEA: euskal folklorea kaleetara ateratzeko jarduerak

ARABAKO DANTZARIEN BILTZARRA

euskal dantzen sustapena:

- **Arabako Eskolarteko Euskal Dantza Topaketa**
- **Aurresku eta Dantza Solteko Arabako Txapelketa**
- **Arabako Dantzari Eguna**
- **Jantzi Dantza**
- **Arabako XIII. Fandango eta Arin-Arin Koreografia Txapelketa**

Hezkuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Arloa

Kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-proiektuak bultzatzen ditugu, gaitasunen eta gizarte-balioen ikaskuntza hobetuz. Beka-programen bitartez babesten dugu ikastea. Ikerketa-proiektuak abian jartzen laguntzen dugu, prozesuan parte hartuz, ikertzaile, erakunde eta instituzioekin batera.

1.987.033 €

Programak
Ikastetxeetan

LH
Ekintzailletza

IkasVital
ikastaroak

Becak

Ikerketa



Arabako Lurralde Historikoko Ikastetxeei Zuzendutako Hezkuntza-Programak

HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA SEXUALA

- **ALDATZEN:** Haurtzaroan sexualitate osasuntsua eraikitzea.
8 ikastetxe, 26 tailer, 563 ikasle
- **MIAKETAK ARABA:** Berdintasunari eta sexu-aniztasunari buruzko ikaskuntza.
8 ikastetxe, 17 tailer, 165 ikasle
- **ZER IKUSI, HURA EGIN:** Antsietatea, harreman toxikoak, apatia eta abar kudeatzea.
- **DENBORAREN LAPURRAK:** Pentsamendu kritikoa gizarte digital honetan.
13 ikastetxe, 2 elkarte, 1.762 ikasle
- **HEMEN NAGO:** Genero-indarkeria prebenitzeko.
30 ikastetxe, 110 talde, 2.265 pertsona
- **GAZTEEN ARTEAN:** HIESa eta sexualitatea ikasgeletan.
38 ikastetxe, 265 ikasgela, 545 esku-hartze, 2.115 ikasle

Vital Fundazioaren helburuetako bat gazteenei txikitatik prestakuntza integrala ematen laguntzea da, askotan arauzko hezkuntzan sartzen ez diren diziplinak irakasten lagunduz. Fundazioak hainbat erakunde eta elkarterekin lankidetzan garatzen du helburu hori.



MOTIBAZIOA ETA BALIOETAN OINARRITUTAKO IRAKASKUNTZA

- **CAMINUS:** Desgaitasunari buruzko eta irisgarritasun unibertsalaren aldeko hitzaldiak.
13 ikastetxe, 10 tailer, 668 bertaratu
- **AURRERA BEGIRA:** Erresilientzia lantzeko eta autoestimua indartzeko tailerrak.
16 ikastetxe, 4 tailer, 940 bertaratu


HEZKUNTZA DIGITALA

- **HAR EZAZU KONTROLA:** Arrisku digitalen aurrean erabiltzeko oinarritzko segurtasun-jarraibideak irakasten ditu.

67 ikastetxe, 26.158 ikasle
1.189 prestakuntza ikasleentzat, 31 prestakuntza irakasleentzat, 465 prestakuntza familientzat

- **RESET ESKOLA:** Edukien, sare sozialen eta mugikorrean erabiltzen diren jokoan erabilera arduratsua.

18 ikastetxe, 1.658 bertaratu



GATAZKAK KONPONTZEKO LAGUNTZA

- **KOKUK:** Interbentzio Sozioedukatibo Kurrikularreko Programak (PISEC), eskolaren balio erantsia izan dadin. Arlo barruan eta kanpoan, irakasleekin, familiekin edo ikasleen arteko gatazkak detektatzeko. Gainera, Bizikidetza-gela Federico Baraibar BHIIn proiektua garatzen dute, arreta pertsonalizatuko eta espezifiko erantzun ekitatibo, integral eta inklusiboa emateko, ikasle kopuru txiki bati erantzunez.

10 ikastetxe, 1.562 ikasle,
633,29 ordu eginda

- **BIRIBILTZEN:** Eskola eta institutuei aniztasuna kudeatzen laguntzea, sor daitezkeen diskriminazio-dinamikak prebenituz eta kontuan hartuz. Taldeak, gatazkak eta emozioak kudeatzen jakitea.

5 ikastetxe

- **ISILTASUNAREN LEGEA HAUTSIZ:** Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei eta familiei zuzendutako programa, ikastetxeetan eskola-jazpena desagerraraztea helburu duten hitzaldietan oinarritua.

7 ikastetxe, 19 hitzaldi, 620 parte-hartzaile
(ikasle, tutore eta familiarteko)



INGURUMEN HEZKUNTZA

- **IKASGELA BERDEAK:** Jasangarritasunarekin lotutako alderdiak hobetzen saiatzeko prestakuntza jarraibideei buruzko hitzaldiak eta energiari, hondakinei, lore-zaintzari eta baratzezaintzari, urari, mugikortasunari eta kontsumoari buruzko tailer tematikoak.

29 ikastetxe, 1.475 ikasle

- **COSMIUM:** Ezagutza astronomikoak irakasten ditu ikastetxeetara eramandako planetario mugikor baten bidez.

30 ikastetxe, 188 saio, 5.378 ikasle

- **ESPAZIOA:** Antzerki/zinema, ikasleei klima aldaketari, gerrari, krisi ekonomikoari eta gizaki garen aldetik etorkizunerako ditugun itxaropenei buruz gogoeta egiteko aukera ematen diena, ikuspegi itxaropentsu batetik.

46 ikastetxe, 136 emanaldi,
39 emanaldi, 3.120 bertaratu

OSASUNA

- **GOSARI OSASUNGARRIAK:** Gosariaren eta bazkari osoa osatzen duten elikagaien garrantziaz kontzientziaztea.

117 tailer
2.235 ikasle



Lanbide Heziketa eta Ekintzailtza Babestea

HETEL - LANBIDE HEZIKETA SUSTATZEA

- **AVANZA AZOKA:** 2024an Araban lanbide heziketa sustatzeko kanpaina, Araban Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe guztiak gune berean biltzeko.
- **ROBO COMPETITION:** Nazioarteko ekimena, HETEL-EGIBIDE LHko 4 ikaslek osatutako talde batek robotikarekin eta 4.0 industriarekin lotutako teknologiekin zerikusia duen erronka bati, taldean lan eginez, aurre egin behar zioten lehiaketa batean parte hartu du. Aurten Danimarkan garatu da.



EGIBIDE LANBIDE HEZIKETA

- **OINARRIZKO ZIKLOETAKO LANBIDE HEZIKETA:** 17 talde. Hezkuntza-baliabideak ematen dizkiegu ikasle horiei, beren prestakuntzan aurrera egin dezaten eta etorkizuneko laneratzea errazteko.
- **'EGIBIDE-VITAL FUNDAZIOA' HARRERA-GELA:** Ikasle etorkinei oinarritzko prestakuntza-tresnak ematen dizkie, ikastetxeko hezkuntza-sistemara pixkanaka eta behar bezala egokitzen direla bermatzeko.
- **INDARTUZ PROEIKTUA:** Aniztasunari arreta emateko, bereziki zaugarritasun egoera handiagoa eta garapen akademiko eta pertsonalerako zailtasun handiagoa duten ikasleen aniztasunari.
- **MURGILTZE-TEKNOLOGIAK APLIKATZEA, LH HOBETZEKO:** Errealitate birtuala (EA), errealitate areagotua (EA) eta errealitate mistoa (EM) irakasten ditu, ikasleen gaitasunak hobetzeko.
- **EREDU PEDAGOGIKOA ERALDATZEA:** Tutoretza kolektiboko eredu bat ezartzeko, ikasleentzako laguntza eta orientazio-prozesuak hobetzeko.
- **ESKOLAKO BIZIKIDETZA HOBETZEA ARTEAREN BIDEZ:** Arte adierazpen artistiko eta ongizate emozionaleko adierazpena den aldetik, espazio artistiko berriak sortuz.

IKASEKITEN- EKITEN IKASTEA

- **BIC ARABAREKIN LANKIDETZAN:** P DBHko 4. mailako ikasleak balio eta gaitasun ekintzaileetan hezteko programa, gizartearen parte-hartzea, ikaskuntza, pentsamendua, lana eta arazoen konponbidea garatzen dituen metodologiaren bitartez. BIC ARABA Berrikuntza Enpresen Zentroarekin lankidetzan.

13 ikastetxe, 19 tailer, 446 ikasle

AMPEA TEACH

- **ARABAKO EMAKUME PROFESIONAL ETA ENPRESARIEN ELKARTEA:** Ikasgeletan emakumeengana hurbiltzea STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) diziplinetan genero berdintasuna sustatzeko, ikasle gazteak estereotipoak gainditzera eta arlo horiek aukera profesional hunkigarri eta inklusibotzat hartzera inspiratuz.

3 ikastetxe, 6 tailer, 200 ikasle



FORMULA STUDENT eta MOTO STUDENT

- **FORMULA STUDENT VITORIA:** Gasteizko UPV/EHUko Ingeniaritza Eskolako hainbat gradutako ikasleak plaza bakarreko ibilgailu elektriko bat egiten aritu dira, nazioarteko Formula Student unibertsitateko lasterketetan lehiatzeko. Ingeniaritzan bikaintasuna sustatzen dute 5 bloketan lan eginez: Structural, Dynamics, Electrical, Organization y Driverless.

50 ikasle, 3 lehiaketa
(UK, Espainia eta Alemania)

- **ARABA MOTORSPORT:** Gasteizko UPV/EHUko Ingeniaritza Eskolako ikasleek lehiaketako motozikletaren prototipo bat diseinatzeko eta garatzeko erronkari egin behar diote aurre, Moto3 kategoria mundialistaren antzekoa. Gure enpresetarako profesional berrien garapena osatzeko aukera ematen du, eta oso eredu erreala izan daiteke beste gazte batzuentzat.

30 ikasle, 2 tutore, 1 gidari

IkasVital Ikastaroak

Vital Fundazioaren programa propioa ibilbide luzea duena duela hogeit urte baino gehiago abian jarritako prestakuntza eta aisialdi jardueretan. Askotariko ikastaroak eskaintzen ditugu (kultura, historia, ekonomia, teknologia berriak, etab.) gure egoitzan, Kordoi Etxean, guztiontzat. Kalitatezko irakaskuntzak, adina edozein dela ere, edozein pertsonari aukera emateko ezagutza berriak eskuratu eta bere gaitasunak hobeto ditzen, eta irakasle espezializatuek ematen dituzte ikastaroak.

ikasVitalCursos para todos/todas
Guztiontzako ikastaroak**IKASVITAL****20 jarduera****116 aurrez aurreko ikastaro****6 ikastaro online****4.921 partaide****INFORMATIKA****KULTURA****HISTORIA****LEGEDIA****NUTRIZIOA****EKONOMIA**

Vital Fundazioa Bekak



Kalitatezko prestakuntza babesten dugu, konprometitutako ikasle arabarrek beren ikasketek sortzen duten erantzukizun ekonomikoaren zama arintzeko aukera izan dezaten. Talentuari eta ahaleginari gure babesa erakusten diogu, hizkuntzetan, teknologian, gaitasun profesionaletan eta unibertsitatean prestatzeko beka programa zabal bat eskainiz.

EGIBIDE BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKO

LHko tituludunentzako funtsa, proiektu teknologikoei lotua, Egibiden garatu beharrekoa

10 beka
30.000 €

DEUSTO -EGIBIDE

Industria Digitaleko Gradu Dualeko ikasleentzat beren lehen ikasmilan

10 beka
29.000 €

ERASMUS UNIBERTSITATEA

EBko Erasmus mugikortasun programako ikasleentzat

112 beka
93.340 €

ERASMUS LH

EBko Erasmus mugikortasun programako LHko ikasleei zuzenduta, 3 hilabetez enpresetan ordaindu gabeko praktikak egiteko

55 beka
27.500 €

EUSKERA (GASTEIZKO IKA)

18 eta 25 urte bitarteko Arabako gazteentzat edo kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonentzat


39 beka
15.000 €

INGELES TEKNIKOA EDO KOMERTZIALA

Idiomas Vital Fundazioan ematen diren unibertsitateko eta/edo Lanbide Heziketako ikasleentzat edo tituludunentzat

9 beka
6.300 €

Ikerketa Bultzatzea



Vital Fundazioak lehentasuna eman dio Lurraldeko eragileen eta sektoreen artean sinergiak eta lankidetzak sortzen dituzten programak babesteari. Ikerketa programak eta proiektuak hobeto garatzen laguntzen dugu, horiek abian jartzen lagunduz eta prozesuan inplikaturik, ikertzaile, erakunde eta instituzioekin batera, Araba arlo horretan erreferente bihurtzeko.

HIBRIDALAB

- **ARABAKO BERRIKUNTZA IREKIRAKO ETA SORMEN TRANSFERENTZIARAKO ZENTROA:** Vital Fundazioak berrikuntza ireki hibridoko prozesuekin lan egiten duen zentro aitzindari honen sorrera bultzatu du, Arabako Lurralde Historikoa eta enpresak berrikuntza eredu gisa kokatzeko. Erakundeak zentroaren eraikuntza finantzatzen lagundu du, eta haren hainbat proiektutan parte hartzen du.
- **GALDERA EKINN:** Vital Fundazioak izendatutako Arabako 6 elkarrekin Berritzen duten Enpresen Klubean sartzea errazteko programa bat, beren jardueretan berrikuntza irekia eta kolaboratiboa bultzatu nahi duten beste erakunde edo enpresa batzuekin harremanetan jartzeko.

4.300 parte-hartzaile jarduera guztien artean
13 coworker aktibo; 3 enpresa egoiliar aktibo; 6 ikertzaile egoiliar;
7 erakunde bazkide; beste 14 erakunde Galdera Ekinn-eko kideak.

CECAK VITAL FUNDAZIOA SARITU DU HIBRIDALAB PROIEKTUAGATIK

Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioak (CECA) Vital Fundazioari eman dio **Gizarte Ekintzaren arloko Hezkuntza eta Ikerketako bigarren saria**, 'HIBRIDALAB, Arabako Berrikuntza Ireki eta Transferentzia Sortzaileko Zentroa' proiektuagatik.

Proiektu aitzindaria da nazioartean, eta Arabako gizarte- eta ekoizpen-sarea dibertsifikatzea eta berritzeko moduak berritzea du helburu.

Arabako Unibertsitate Campusean instalatuta dago, eta **Vital Fundazioak eta Conexiones Improbables** ekimenak bultzatzen dute, **Arabako Foru Aldundiaren eta beste toki erakunde batzuen** laguntzarekin.

Abian jarri zenetik, HIBRIDALABek **berrikuntza hibridoko 26 proiektu** egin ditu enprekin, gizarte kolektiboekin eta herri-tarrek. Horietatik, AArekin, mugikortasun jasagarriarekin edo belaunaldien arteko erreleboarekin lotutako 4 ekintzailetza lerro sortu dira.

UPV/EHU + KONEXIO-ONA

-OLINE PORNOGRAFIARI DAGOKIONEZ, GASTEIZKO NERABEEK ZER-NOLAKO KONTSUMOA EGITEN DUTEN AZTERTZEA: EHuko PSIDES-Psikologia sailak, KONEXIO-ONA erakundeak, Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak egindako programa, online pronografiari dagokionez, udalerriko nerabeek egiten duten kontsumoari buruzko zeharkako azterketa bat egiteko, prebentzio- eta esku hartze-estrategiak ezartzea errazteko eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako prestakuntza-plan bat diseinatzeko.

13 ikastetxe; 1.207 ikasle

UPV/EHU

- **INIZIA ARABACAMPUS eta CBI@BASQUE COUNTRY UNIVERSITY ARABA CAMPUS:** ezagutzak transferitzera eta ekintzailetzara bideratutako programak.
- **IKERKETA PROIEKTUAK:** lurraldeari eta GJHei lotutakoak.
- **ZIENTZIA ASTEA:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea.


UCA

- **IKERKETA ETA DIBULGAZIO PROIEKTUAK:** minari eta horrek osasunean duen eraginari buruz, pazienteen bizi kalitatea hobetzeko, eraginkortasun handiagoko tratamenduak aztertuz, eta, bestetik, prebentzioa sustatzen, arreta medikoa hobetzen eta pazienteen eta profesionalen artean elkarrikereta hurbilagoa sortzen inplikatur.



Enplegu eta Laneratze Arloa

Gazteentzako zein egoera bereziki ahulean dauden pertsonentzako lan aukera berriak erraztuko dituzten ekimenak babesten eta bultzatzen ditugu. Ekintzaileak babesten ditugu beren enpresa sortzeko prozesuan, prestakuntza eta aholkularitza programak eskainiz. Enplegu baterako izangaien gaitasunak hobetzen laguntzen dugu, profil lehiakorragoak lortzeko, lan eredu berrietara egokitu daitezen.



701.783 €



Laneratzea

Gizarteratze- eta laneratze-programak gauzatzen dituzten instituzioak eta erakundeak babesten ditugu, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen enplegua lortzeko aukera izan dezaten.

MICAELA PORTILLA ESKOLA TAILERRA (AÑANAKO KUADRILLA)

Langabezian dauden gazteei zaharberritze-arloan lanbide bateko prestakuntza ematea sustatzen du. Igeltserotza, zurgintza eta basogintzari buruzko ezagutzak ematen dituzte, laneratzea errazten dute eta Fontechako Orgaztarren Dorre-Jauregia (Araba) eta Gesaltza Añanako Gatz Harana birgaitzen laguntzen dute

36 gazte parte-hartzaile



GUREAK ARABA

Enplegu Zentro Berezia, edozein motatako desgaitasuna (psikikoa, sentzoriala, fisikoa eta gaixotasun mentala) duten pertsonak laneratzeko lan egiten duena. Halaber, desgaitasunari eta enpleguari buruzko informazio- eta kontzientizazio-ekintzak garatzen dituzte Arabako enpresa-sarean. 3 jarduera-ildo lantzen dituzte: orientazio-zerbitzua, enpresen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantokian bertan.

HAZIA 23

18 eta 23 urte bitarteko gazteak (salbuespen gisa, 30 urtera artekoak) lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituztenak (kualifikazio akademiko eta esperientzia txikia dutelako) laneratzeko programa. Gasteizko Udalarekin, Adsis Fundazioarekin, Egibiderekkin eta Caritasekin lankidetzan.

25 gazte parte-hartzaile

IJITOEN IDAZKARITZA FUNDAZIOA (CALÍ PROGRAMA)

Kolektibo kalteberetako pertsonen gizarteratzea eta laneratzea hobetzen ditu, batez ere emakume ijitoena, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna eta diskriminazio mota guztien aurkako borroka sustatuz, genero-indarkeriaren biktimei arreta berezia eskainiz.

26 emakume Calí programan
10 emakume laneratzeko ibilbideetan
50 emakumek jaso dute genero-indarkeriako protokoloari
buruzko informazioa
87 pertsonak jaso dute genero-berdintasunari buruzko
informazioa (49 emakumek eta 38 gizonak)

SARTU ARABA

Bazterkeriaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea du helburu, gizarte-laguntzako zerbitzu komunitarioen sareko beste zerbitzu publiko bat den aldetik.

- BATEKIN boluntariotzarako eta partaidetza sozialerako Arabako agentzia da.

1.396 pertsona artatu dira eta 173 sentsibilizazio-ekintza egin dira

- SEDOTU ALDIBEREAN GAZTEA lanean edo prestatzen ari ez diren gazteak lan-merkatuan sartzeko Europako proiektua da.

10 emakumek eta 2 gizonak hartu dute parte laneratze-ibilbidean.

- HARRERA ZERBITZUA pertsonen gizarteratzen laguntzeko, batez ere gizarte-bazterketako egoeran daudenei

1.408 pertsona (575 emakume eta 833 gizon)



Ekintzailetza

Ekintzaileei beren enpresa sortzeko prozesuan laguntzen diegu, prestakuntza- eta aholkularitza-programak eta haien arteko loturak hobetzeko topaketak eskainiz.

MERKATARITZA GANBERA

- **EKINEAN:** Araban enpresa-proiektu bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten ekintzaileentzat.
- **SENDOTZEN:** sortu berri diren eta jarraitzeko laguntza behar duten enpresak babesteko, adibidez, aholkularitza eta prestakuntza arloetan.

EKINEAN: 10 proiektu
SENDOTZEN: 10 proiektu

AJEBASK

(Arabako Enpresari Gazteen Elkarte)

Enpresa-prestakuntzako eta -coachingeko ekintzak bultzatzen ditugu, espirtu ekintzailea duten gazteei laguntzeko, eta gure lurraldean enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzen laguntzeko, Arabako Enpresari Gazteen Elkartearekin lankidetzan.

12 ikastetxe
500 ikasle
100 prestakuntza-saio
20 proiektu finalista: 3 proiektu irabazle



ASLE**(Euskadiko Lan Sozietateen Enpresa Elkarte)**

Lan Sozietate/Partaidetzako Sozietate formako enpresa-proiektu bat abian jarri edo dagoeneko lanean ari den lan-sozietate batean parte hartu nahi duten lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko. ASLE pertsona ekintzaileekin lanean aritu da, hainbat sustatzaile-talderi eman die informazioa: ekintzaileak, birmoldaketa-prozesuak, belaunaldi-erleleboko prozesuak/enpresaburua ordeztzea, etab.

4 lan sozietate berri

**ARABA EKINEAN**

Vital Fundazioak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, SPRI Taldearen bidez eta BIC Arabarekin batera, ekintzailetzaren Arabako atarian, informazioa, laguntzak, diru-laguntzak, ekitaldiak, prestakuntza emateko eta ekintzaileen eta laguntza-erakundeen arteko lotura hobetzeko. Hainbat ekimen gauzatzen dira:

- **ENPRESEN AZOKA:** ikasturtean zehar Arabako LHko hainbat ikastetxetako ikasleek garatu dituzten enpresa-proiektu berrietarako erakusleihoa (IKASEKITEN programa).

59 proiektu; 8 ikastetxe

- **EKIN BREAKFAST:** Ordu eta erdiko saio tematikoak, hainbat eragilerekin lankidetzan.

7 saio; 273 pertsona

- **EKIN DAY:** ekintzailetzari buruzko urteko jardunaldia. Bertan banatzen dira 'Zure ideiak balio du', 'Araba Ekinean' eta 'Ekintzaile handia' lehiaketako sariak.

45 proiektu aurkeztuta

Empleo Araba

2.000 pertsona inguru artatu dira


SEA Arabako Enpresak elkartearekin batera jarri da abian, Arabako enplegu-eskaintza eta -eskaria bateratzeko, enprekin zuzeneko bitartekaritzak eginez, bai eta orientabideak eta prestakuntza osagarriak ere, epe la-burrean Arabako enpresek dituzten langile-beharrak asetzeko.

▪ **TALENTUA ATXIKITZEA ARABAN** *coaching* programen eta enplegua aktiboki bilatzeko tresnen bidez, profil interesgarrietako talentua zabaltzeko buletin bidez eta enpresen eta enplegu-bilaketa aktiboan edo enplegu-hobekuntzan di-harduten profesionalen arteko bitartekaritzan oinarritutako enplegu-zerbitzuaren bidez.

▪ **INDUSTRIAN EMAKUMEAREN SUSTAPENA:** Arabako enbaxadoreak STEAM lanbideetan (Science, Technology, Engineering, Arts and Mathematics).

▪ **BEKAK** gazte tituludunei, enpresetan praktikak egiteko.

▪ **IKASTETXEETARA HURBILTZEA** etapa goiztiarretan orientatze-ko, **Industria Eguna**, **Gure Enpresak** edo **Ezagutu enpresa** ekimenen bidez (DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak eta Batxilergokoak). Baita **STEAM Orientazio Profesional Goiztiarreko** programa ere (eraiki eta eman bizia zure *ciborg* esku propioari).



Vital Bootcamps

Enplegu-programa berritzailea, **Vital Fundazioak** eta **Lanbidek** sustatua Arabako lurraldean, BBK Fundazioak Bizkaian egindako esperientzia oso positiboa aprobetxatuz, enplegarritasun-tasa handiak dituela erakutsi baitu. Proiektuak **BOOTCAMPS** formatua erabiltzen du (oso intentsitate handiko programa laburrak, non ikasleek trebetasun teknikoak eskuratzen dituzten, etengabe praktikatuz). **VITAL BOOTCAMP**Sek **gaitasun digitaletan kualifikatzeko** aukera ematen die, zehazki, zibersegurtasun arloan, langabezian edo laneko kalteberatasun egoeran dauden pertsonei, aldez aurreko ezagutza teknikoen beharrik gabe, **erabat berregokitzeko profesionalki**, lan merkatuan sar daitezela bultzatzeko.

34 pertsonak ekin diote proiektu honi



Ingurumen eta Lurraldearen Sustapen Arloa

Ingurumen
Programak

Lurraldearen
Sustapena

Jaibus
Vital



Ingurumenarekiko konpromisoaren erreferente izan nahi dugu Arabako Lurralde Historikoan, biodibertsitatearen aldeko ekintzak gidatzen ditugu 15. GJHaren il-dotik. Arabako kultura-ondarea, euskara eta gure tradizioak defendatzen ditugu. Tokiko azokak eta merkatuak egiteko laguntza ere ematen dugu.

928.319 €



Ingurumen Programak

ETXE BERDEAK

Euren eguneroko ohiturek ingurumenean, gizartean eta ekonomian duten eraginaz kezkatuta dauden familiei zuzendutako hezkuntza-ekimena.

Eguneroko ekintzetan aldaketak sustatzen ditu, ingurumenarekiko jarrera arduratsuagoa izateko, eta energia-baliabideak kudeatzen eta aurrezten irakasten du. Tailer, hitzaldi eta bisiten bidez garatzen da.

371 pertsona
113 etxe Araban
35 etxe Gasteizen



15. GJH GARATZEA: 'LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA'

15. GJHaren Garapen Jasangarrirako Helburua du ardatz, ur gezako lurreko eta barneko ekosistemen jasangarritasuna sustatzen duena, bereziki basoetan, hezeguneetan, mendietan eta eremu idorretan.

2024an, Arabako Errioxako 6 udalerritan hasi dira ekintzak: Lapuebla de Labarca, Oion, Moreda Araba, Guardia, Bastida eta Kripan.

LAPUEBLA DE LABARCA: tailerrak eta hitzaldiak, 19 haur eta 14 heldu

OION: tailerrak eta hitzaldiak, 4 haur eta 2 heldu

MOREDA ARABA: saguzarrentzako lehenengo hotela, 18 heldu eta 10 haur

BASTIDA: habia-kutxak, 6 heldu eta haur 1

GUARDIA: bisita gidatuak eta intsektuentzako hotela, 10 partaide

KRIPAN: Mediterraneoko arrano beltzari buruzko tailerrak, 8 haur eta 10 heldu



PLASTIKORIK EZ

Plastikozko produktuen kontsumo arduratsua planteatzen duten ekintzen multzoa, produktu horien ekoizpena izugarri igo baita azken hamarkadetan. Herri-tarrak kontzientziaztea eta gure egunerokoan erabiltzeko aukera praktikoak eskaintzea du helburu kanpainak.

Gasteizko Udalarekin batera, EDALONTZI BERRERABILGARRIAK programa garatu dugu, jai herrikoietan erabilerak bakarreko edalontzien kontsumoa murrizteko.

120.934 edalontzi banatuta Gasteizko jaietan eta Gasteizen egindako Jazzaldian, Azkena Rock Festival-en eta Aztarna Beltzean



IBILVITAL

Mendian modu erraz eta gidatuan hasi nahi duten pertsonentzat pentsatutako mendi-irteerak, edozein adin edo egoera fisikotako pertsonentzat irisgarria, baita mugikortasun murriztua dutenentzat ere


8 ibilbide lurraldean zehar **201** partaide



ARABAKO NATURAREN INSTITUTUA

XABIER DE ARIZAGA HERBARIO DIGITALA: Bizkaiko Golkoko eta Akitaniako floraren dibertsitatea biltzen du.

Natura ezagutzeko irteerak, botanikan eta zoologian hasteko ikastaroak, eta hitzaldiak ere egiten dituzte.



Lurraldearen Sustapena

GATZ HARANEKO ESPAZIOAK BERRESKURATZEA

- Paisaiaren kultura materiala eta ingurumenekoa berreskuratzea eta kontserbatzea, Añanako gatzagen jasangarritasuna bermatzeko
- Teknika tradizionalak erabiliz ekoiztea, modu jasangarrian eta gatz-egileen milaka urteko jakinduria errespetatuz. Gatz hori kalitate handikoa da, eta saltzeak proiektua autofinantzatzen laguntzen du
- Jendeari ekimen kultural eta turistikoak eskaintzea, eskualdeko garapen sozial, ekonomiko eta turistikoaren motorra diren aldetik

- 41 larrain, 6 putzu, 3 terraza eta gatz-biltegi, egurrezko garabi 1
- Añana Haraneko habitata berreskuratzeko proiektua
- Harmailak birgaitzea
- Esku-hartze botanikoa Muera ibaian
- 84.000 pertsonak bisitatu edo tailerrak egin zituzten



Arabako ondarearen aberastasunak berreskuratzeari, defendatzeari eta zabaltzeari ere arreta berezia eskaintzen dio Vital Fundazioak, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzan. Gainera, turismo-ibilbideak eta tokiko produktuak sustatzen ditu, eta azokak nahiz merkatuak antolatzen ditu eta garatzeko materialak lagatzen ditu.

VITAL FUNDAZIOAREN GABONETAKO MERKATUA

- Gabon-gauaren aurreko ostegunean, Vital Fundazioak ohiko Gabonetako Merkatura egin du Plaza Berrian, Arabako lehen sektorearen eta hurbileko produktuaren alde eginez, uztartze-dastaketak Kordoi Etxean eta Herri Kirolen erakustaldia Memoria Plazan.

- 99 postu, 81 ekoizle
- 120 pertsona uztartze-dastaketetan
- 12 zozketatutako produktu sorta
- 10.000 poltsa berrerabilgarri



- 'ERRONKA GARBIA - Ingurumenaren aldetik jasagarria den ekitaldia'



Lurraldearen Sustapena

LURRALDEKO AZOKAK

- Tokiko ekonomia dinamizatzea, ezagutza zabaltzea eta tradizio kultural eta tokiko produktu oso espezifikoekin jarraitzea, hala nola boilurra, perretxikkoa, txakolina, patata, babarruna, gazta, gatz, lurreko behia, BIO Araba, etab.
- Udalei eta koadrilei hainbat egitura ematen dizkiegu, hala nola hesiak, puzgarriak, standak, megafonia, karpak, etab.

45 azoka eta ekitaldi baino gehiago



ONDARE IREKIA

- Arabako ondareari irekitasun digitala eskaintzea eta haren zabalkundea eta ezagutza erraztea, Hagaburu Kultura Elkartearen eskutik
- Monumentuaren oinean dagoen QR kodearen bidez, 360°-ko argazkiekin eta bideoekin eguneratutako informazio historiko-artistikoa duen fitxa oso batera sartzen da

ARABAKO ERRIOXAKO ARDOA SUSTATZEA

- **XIV. ENOTURISMO FOROA:** Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea Elkartarekin batera garatu da, eta tursimo enogastronomikoaren funtsezko ekitaldia da

18 prestakuntza, 15 upategi parte-hartzaile, 172 ikasle

- **ARDOARABA:** ardoaren kultura, gastronomia eta gourmet produktuak protagonista diren agertokia, **Gasteiz on**-ekin batera antolatua


75.000 bisitari, 3 kokaleku, 25 upategi, 23 jatetxe eta 60 taberna

- **MAHATS-BILKETAREN JAIA:** 29. JARDUNALDIA Moredan egin da, irailaren 15ean

Milaka bisitari



- **CLUNAES (Cluny-Naiara-Estibaliz)** bultzatzea eta Maria Lopezen (1131), Estibalizen sortzailearen, testamentua argitaratzea
- 3d ereduak: Zelaiko Andre Mariaren basilizako kapitela (Maeztu)
- Fitxa interaktiboa: Oteoko Ama Birjina
- Tourrak eta esperientzia birtualak: paisaia sakratuen bigarren zatia (Santorkaria eta Gobas haitzuloak)



Jaibus Vital

Vital Fundazioak antolatutako garraio-zerbitzua da. Herriko jaiak ospatzen dituzten herrien artean egiten da, joan-etorri txikietan eta gazteen beharretara egokitutako ordutegian.



Udaro Arabako hainbat udalerritako jaietara gaez egiten diren joan-etorriek dakartzaten arriskuak saihestea du helburu ekimen honek. Vital Fundazioak aukera bat eskaintzen die 15 urtetik gorakoei aisialdiaz gozatzeko eta etxera modu eroso eta seguruan itzultzeko.

JAIBUS VITAL:

- Ekainaren 15etik urriaren 15era
- 31 helmuga
- 58 ibilbide
- Garraio egokitua izateko aukera
- 73 autobus
- 3.351 pertsonek erabili zuten

Beste kolaborazio batzuk

Ingurumenaren eta Euskal Lurraldearen eta kulturaren sustapenaren arlo honetan, beste hainbat ekimenekin lankidetzan ere aritzen gara:

- **VITORIA-GASTEIZKO UDALA** (Azokei eta Andre Maria Zuriaren jaiei laguntzeko programak)
- **APASOS** (Animaliak babesteko elkarteak)
- **SALCEDOKO LAGUNEN KULTURA ELKARTEA** (Landako inauteriak berreskuratzea)
- **SANTA KATALINA LORATEGIKO LAGUNEN ELKARTEA** (Sentsibilizazioa eta prestakuntza)
- **IPAR ARRIAGAKO AUZO ELKARTEA** (Napoleonen merkatua eta auzoaren sustapena)

- **BOILUR** (Arabako Elkarte Gastronomikoen Federazioa)
- **CEA** (Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurumen Ikasketen Zentroa)
- **GASTEIZKO BLUSEN ETA NESKEN BATZORDEA** (Barriken lasterketa)
- **HARRABITXI** (Gemologia eta Mineralogia Euskal Elkarteak)
- **ARABAKO ARKEOLOGIA INSTITUTUA**
- **MINIATURE WORLD TOUR** (Pintxo Congress)
- **UAGA** (Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintza Elkarteak)
- **ARABAKO BESTE TOKI-ERAKUNDE ETA KUADRILLA BATZUK**

Kirol Arloa

Oinarrizko
Kirola

Kirol
Inklusiboa

Kirol
Herrikoa



Kirolak pertsonen osasun fisikoan nahiz mentalean dituen onurak defendatzen ditugu. Herritarren esparru eta estamentu guztietan kirola egitea sustatzen duten klub, elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzen gara, ikasleei eta kirol inklusiboari arreta berezia eskaintzen diegu, proba herrikoiak ahaztu gabe.

788.362 €



Oinarrizko Kirola

Arabako ikasleentzako kirol prestakuntza babesten dugu. Lankidetzaz hitzarmenak ditugu 30 klub, federazio eta kirol elkarte baino gehiagorekin. Hainbat diziplinatan egiten duten sustapen eta prestakuntza lana, jarduera fisikoaren eta ohitura osasungarrien sustapena, torneoen antolaketan, masterklaseetan, txapelketetan eta abarretan egiten duten lana babesten dugu.

Kirol Masterklaseak

- Vital Fundazioak masterklaseen beste edizio bat antolatu du Arabako kirolariekin, eta Lurraldeko ikasle txetara joan ziren ikasleen artean oinarrizko kirolaren praktika sustatzeko, hain ezagunak ez diren diziplinei protagonismoa emateko eta haien praktika sustatzeko, bai banakako kirolean, bai taldeko kirolean, baita kategoria mistoetan ere
- Atal teoriko bat dute, non emakume kirolariek beren esperientziaz, kirolean nola hasi ziren eta fisikoki eta psikologikoki ematen dienari buruz hitz egiten duten, eta beste atal praktikoko bat, diziplina bakoitzeko ariketak eta teknikak irakasteko
- Arabako erreferente femeninoei ikusgarritasuna ematen diete

56 masterklase emanak, Arabako 14 ikastetxe, 1.327 ikasle partaide

9 kirol modalitate: Errugbia, Curlinga, Padela, Badmintona, Atletismoa, Boleibola, Eskrima, Karatea eta Hockeya



Eskola-Kirola

Vital Fundazioak kirol klub, federazio eta elkarteekin lankidetzan dihardu, jarduera fisikoa bultzatzeko eta ikasleei ohitura osasungarriak ikasten laguntzeko, kirola eginez:

- **SASKIBALOIA:** Araski Emakumezkoen Saskibaloia Kluba ; Arabako Saskibaloia Federazioa; Araberri eta Goratu saskibaloia klubak
- **FUTBOLA:** Arabako Futbol Federazioa; Arambizkarra, Arlote, Zambrana, San Ignacio, Salvatierra, Zaramaga futbol klubak
- **TXIRRINDULARITZA:** Arabako Txirrindularitza Federazioa eta Artitziniega, Arabarrak, Llodiano eta Zuiano txirrindularitza klubak
- **GIMNASTIKA:** Arabako Gimnastika Federazioa, Ceted gimnastika kluba eta Arabatxo kluba
- **ATLETISMOA:** Arabako Atletismo Federazioa etala Blanca, el Prado, Laudio atletismo klubak
- **EUSKAL PILOTA:** Arabako Pilota Federazioa eta Zaramaga eta Zidorra pilota klubak
- **HERRI KIROLAK:** Herri Kirolak Federazioa

BESTE ZENBAIT HITZARMEN: Judizmendi Igeriketa Kluba, Ehariak Emakumezkoen Eskubaloia Kluba, Arabako Judo Federazioa, Waterpolo Lautada Kluba, Gasteizko Mahai Tennis Kluba, Peña Vitoriana, Gasteizko Mendi Kluba, Sociedad Excursionista Manuel Iradier Txangolari elkarte, Harrikada Curling Kluba, eta abar. Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzua babesten dugu kirol jarduerak abian jartzeko.



VITAL KIROLPASS

- Vital Fundazioak eta Laudio Udalak antolatutako kirol jardunaldia, herriko gazteen artean diziiplina askotako praktika sustatzeko
- Atletismoa, txirrindularitza, patinaje artistikoa, saskibaloia, esku pilota, karatea, crossfit eta padelak bete zuten Adai plaza maiatzaren 19an

DEPORTIVITY

- Arabako oinarrizko futbolean kiroltasuna sustatzeko programa. Gesto Deportivo elkartearen eskutik aurrez aurreko tailerrak eginez eta aplikazio bat erabiliz, balioetan hezten dira kirolariak, entrenatzaileak eta kirol ingurune osoa, jokalarien gurasoak ere inplikatu
- Arabako Futbol Federazioak, Arabako Foru Aldundiak eta Kirolaren Euskal Eskolak laguntzen dute

70 talde, 968 partida monitorizatu

Kirol Inklusiboa

Gaitasun desberdinak dituzten pertsonen artean Kirola eta kirol lehiaketa ahalbidetzen duten programak babesten ditugu, garapen pertsonala, eragozpenak gainditzeko grina, integrazioa, leialtasuna, lankidetzeta eta abar lortzeko. Kirola eta bizitza pixkanaka espazio bakar eta inklusibo bihurtzeko lan egiten duten klubei nahiz elkarteei babesa ematen diegu.

ZUZENAK FUNDAZIOA

▪ Laguntza ematen diogu Zuzenak Vital Fundazioa Gurpil Aulkiko Saskibaloia Taldeari. Kategoria nazional gorenean lehiatzen da, Ohorezko Mailan. Guztira 11 kirol modalitate garatzen dituzte:

70 kirolari 11 kirol-modalitatetan: Gurpil-aulkiko saskibaloia, errugbia gurpil-aulkian, paraziklismoa, motokrosa, atletismoa, tiro olinpikoa, eskia, parazaldizko doma, goaballa, parabadminton, igeriketa

▪ Gizarteratzea erraztuko duten jarduerak sustatzen ditu, desgaitasunaren errealitatea neurri handi batean oraindik ezagutzen ez duen gizarte honetan



JARDUERA FISIKO EGOKITUAREN TAILERRAK ARABAN: 180 pertsona
ARIKETA FISIKO EGOKITUA BIDERATZEKO PROGRAMA: 100 pertsona
OSASUN ETA ONGIZATE TAILERRAK: 121 pertsona
'BALIOETAN HEZTEN' JARDUNALDIAK: Arabako 8 herritako 454 ikasle
KIROL EGOKITUAREN ZABALKUNDEA: 570 ikasle, EAeko 8 ikastetxe
UDAKO CAMPUS INKLUSIBOA: 4 aste, 40 pertsona/asteko
BALOREAK ALDIZKARIA: 1.500na aleko tirada izan duten aldizkari bi

GAZTE DI RUGBY TALDEA

- Senior mailako gizonezkoen taldea Ohorezko B Mailan ari da, Errugbiko Maila Nazionaleko bigarren mailan
- Vital Fundazioak 8 taldez osatutako Errugbi Eskolarekin lankidetzan dihardu
- Baita Inklusio Taldearekin ere, Isabel Orbe Elkartearen (DOWN ARABA) eta Gaztediren arteko lehenengo lankidetzeta batetik sortua

500 kirolari 8 talde federatu



ASPACE ARABA KIROL KLUBA

- ASPACE Garun Paralisiaren Arabako Elkartek Kirol Inklusiboaren Klub bat du, lehiaketako kirola eta jolas kirola nahiz hastapenekoak sustatzen dituen, BOCCIA (normala eta slalom) eta IGERIKETA EGOKITUA modalitateetan.

21 kirolari, kirol-begiraleen, boluntarioen eta garraio-zerbitzu egokituaren laguntzarekin

Aurten, Vital Fundazioaren laguntzari esker, entrenamendu osteko dutxarako egokitutako aulki bat erosi dute, kirolarien higiea errazteko eta erorikoak edo lesioak izateko arriskua murrizteko.

Kirol Inklusiboa

MENDI SOLIDARIOAK

- Elkarrekin mendian kirol solidarioa eta inklusiboa sustatzen du, dibertsitate funtzionala duten pertsonen naturara egiten dituzten talde irteeretan parte hartzea erraztuz.
- Hainbat ekimen babesten ditugu, hala nola 'Ametsak bete' irteerak, prestakuntzak, hitzaldiak ikastetxeetan edo irteerak egoitza zentroetan bizi diren pertsonenkin.

308 bazkide, horietako 189 boluntarioak eta 15 mendi-gidari.

AMETSAK BETE EKIMENA: 9 txango

MENDIRA IGOTZEA: 2 txango

EGOITZA-PROIEKTUAK: 3 txango egoitzetako pertsonenkin



**MONTES
SOLIDARIOS**

Kirol arlo honetan babesten ditugun beste ekimen batzuk hauek dira:

- **NAZIOARTEKO III. PARABADMINTON TXAPELKETA GASTEIZEN**
- **AUKERA ANAITASUNA KIROK KLUBA** (7ko futbola eta pilota desgaitasuna duten pertsonentzat)
- **EKHITEA KIROK KLUBA** (saskibaloia soziala AEN duten pertsonentzat)
- **SAGARDOVOLLEY** Miaukatuz Kirol Klubaren boleibol mistoko txapelketa inklusiboa



GUREKIN BAT

- Vital Fundazioak programa hau jarri du abian Arabako Foru Aldundiarekin, Kirolaren Euskal Eskolarekin eta Arabako Futbol Federazioarekin batera, desgaitasunen bat duten pertsonen futbola helarazteko eta esperientzia inklusiboa izan dezatela.

9 saio, **7** kuadrilla arabar,
500 partaide

INCLÜYENOS
GUREKIN BAT



FÚTBOL INCLUSIVO EN ÁLAVA

BOXEO ESKOLA

- Arabako Boxeo Federazioarekin batera, Vital Fundazioak eskola-boxeoa sustatzen duen eta Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzen den eskola hori babesten du, kirolaren bidez ingurune marjinaletako gazteak eta egokitze zailtasunak dituztenak integratzeko.
- Genero berdintasunari buruzko sentsibilizazio ekintzak eta emakumeentzako autodefentsa ikastaroak ere garatzen ditu.



40 pertsona integrazio-programan

Kirol Herrikoia

Vital Fundazioa Kirol probak gure lurraldera hurbiltzen dituzten erakundeekin lankidetzan aritzen da, arabarren zaletasuna eta parte-hartzea sustatzeko, bai protagonista, bai ikusle.

VITORIA-GASTEIZ MARATOI ERDIA: hiriko kaleak zeharkatuz

21,097 km eta 3.000 atleta baino gehiago

Lasterketa Txiki benjamin aurreko, benjamin, alebin eta haur eskola-kategorietarako

GASTEIZ TXIRRINDULARITZA

PROBA: Arabako zazpi kuadrilletatik bost zeharkatuz eta **zazpi mendate** gaingiduz

2 ibilbide: 100 km-koa eta 180 km-koa

750 partaide

THE WOLF RACE: Gravel bizikletako autosufizientzia-proba gauzez Uribarri Ganboako urtegi, Izkiko Parke Naturalean, Toloño-Kantabria mendilerroan eta Arabako Errioxan.

300 km eta 3.520 m-ko desnibela, gehienez ere 24 ordutan

200 partaide

Honako hauek ere babesten ditugu:

- **ZUIADU: ZUIAKO IV. DUATLOIA**
- **BILARREKO DUATLOIA**
- **SAN SILVESTRE LASTERKETA**
- **ESTIBALIZ IGOERA**
- **LAUDIOKO KROSA**
- **LAUDIOKO ZIKLO-KROSA**
- **LA BLAN ZIKLOTURISTA**



VITORIA-GASTEIZ TRAIL: Eratzun berdea, Armentia basoa eta Zaldiaran, Errosteta, Arrieta eta Eskibel mendiak zeharkatuko ditu ibilbideak

Zirkuitu 2: 16 km-koa eta 26 km-koa
11 nazionalitateko 850 atleta

VI HALF GASTEIZ: distantzia ertaineko triatloiaren jaia Gasteizen eta Araban.

1.900 m igeriketa Uribarri Ganboako urtegi, **90 km** txirrindularitza Arabako Lautadan zehar eta **21 km** oinezko lasterketa Gasteizen zehar

736 partaide

IZKI TRAIL: ibilaldia Izkiko Parke Naturaleko bidezidorretatik eta gailurretatik

21 km

200 korrikalari

TRILEGUTIO: igeriketa Urrunagako urtegi, bizikleta Otxandiotik Olaetara eta lasterketa oinez Legution

1.500 m igeriketa, **43 km** bizikleta, **10 km** lasterketa

300 partaide

Trilegutio Txiki ere egiten da


GASTEIZKO MENDIAK: Manuel Iradier Txangolari Elkartearen **75. Urteurrenaren** programa barruan

62,3 km Itxogana, Indiagana, Arraialde, Almurrain, Kapildui, Zalbizar, Lendiz, Arrieta, Zaldiaraban, Busto eta Ezkibel-etik

1.000 korrikalari

2024ko Laguntzen Deialdi Irekia


- 181 ekimen aurkeztuta
- 123 proiektu onartuta
- Jasotako eskaera guztien % 68



Vital Fundazioak laguntza deialdi bat egin du 2024an, Arabako gizarteak eskatzen dituen erronka berriei erantzuteko eta ahalik eta sektore gehienetara iristeko, Arabako gizarte sareko erakunde guztien parte hartze berdina eta lehia askea sustatzea helburu.

Lehen aldiz, deialdi 'irekia' da, hau da, ez du onarpen eperik, izapideak errazteko eta aurkeztu beharreko proiektuak garatu eta heldu ahal izateko. Urteko 366 egunetan erantzun zaie erakundearen jardun-eremuetan arabarren bizi-kalitatea hobetzea helburu duten eskaerei.

Proiektu berritzaileak lehenetsi dira, irtenbide berriak eta eraldaketa soziala sortuko dituztenak; euskararen erabilera, genero berdintasuna, gizarteratzea eta boluntarioritza bultzatuko dituztenak; bideragarritasun soziala eta ekonomikoa izango dutenak, efizientzia irizpideak dituztenak eta garatu beharreko jardueren jasangarritasuna bermatuko dutenak. Guztiak Arabako erakundeek abian jarritakoak, ahal dela irabazi-asmorik gabekoak.



Kirol Ekipamenduetarako Laguntzen Deialdia



EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda egotea eta betebeharrak guztiak egunean izatea**
- **Haurren kirolean sexu-abusuen eta jazarpenaren protokoloak izatea, kiroleko indarkeriaren aurkakakoak eta genero-berdintasunekoak**

Laguntzak 1.000 eta 4.000 euro bitartekoak izan dira, fitxa aktiboaren kopuruaren arabera.

Kamisetak, jokorako galtzak, entrenamendurako kamisetak edo igerilekuko txanoak erosteko.


2024an, Arabako Lurralde Historikoko klubek, federazioek eta beste kirol erakunde batzuek ekipazioak erosteko laguntzen lehen deialdia ere egin du Vital Fundazioak. Oinarrizko kirola, kirol herrikoa, talde inklusiboak, eskola kirola, 23 urtez azpiko kirola eta seniorrak sustatzera bideratutako proiektuak babes-
tea eta bultzatzea izan da helburua. Horrela, kirol erakunde-
aldetik urtean zehar jasotzen dituen eskaera guztiak bideratu
nahi ditu Vital Fundazioak, irtenbide eraginkorragoa eskaini
ahal izateko.

GUZTIRA: 58.892€


31 eskaera aurkeztuta

29 eskaera onartuta

Jasotako eskaera guztien % 93,54



Vital Eguna 2024



Vital Fundazioak bere jai-ekitaldiaren 6. edizioa ospatu du. Asteburu batean, erakundeak poza eta dibertsioa partekatu ditu Arabako gizartearekin, musika protagonista izan duen programa baten eskutik. Kontzertu handi bat egin da Foruen plazan, eta musika Zabalgana auzoraino iritsi da. Hitzorduak 500 lagunentzako street escape berritzailea izan du, gaueko martxa solidarioa eta enpresa-lasterketa. Berriz ere atera da Lurraltera, eta Legution eta Langraiz Okan kontzertuak egin dira. Ekimenak berriro lortu du Erronka Garbia ziurtagiria, hau da, ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia dela dioen ziurtagiria.



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA